

1.- Opor Fiskalen banaketa (Estatuaren laguntzak)

Egindako lan handiari esker, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen artean 229,7 milioi euroko zenbatekoa duten eta 2012an berreskuratu ziren Opor Fiskalak banatu dira. Ildo horretan, eta EUDELen proposamenez, Arabako Foru Aldundiak honakoa erabaki du:

- 2013ko ekitaldian, 24,7 milioi euro gehigarri ordaintzea Tokiko Erakundeei TEFFFen banaketari dagokionez (2013eko ekitaldirako TEFFFen %14,5), apirileko, uztailako eta urriko konturako ordainketekin batera. Zenbateko hori Lurraldeko baliabide eskuragarrien %52,3ko partaidetzari dagokio.
- 2014ko ekitaldirako, konpromiso gehigarriko kreditua aitortzea Arabako Foru Aldundiko aurrekontuetan, "Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Ezohiko Finantziaketa" delakorako, 1,7 milioi euroko zenbatekoan. Zenbateko hori Lurraldeko baliabide eskuragarrien %3,7ko partaidetzari dagokio.